

**LAN ARRISKUEN  
PREBENTZIO  
ZERBITZUA**



# → FOTOKOPIAGAILUEN KOKAPENA ETA ERABILPENA

**Hezkuntza Departamentua**  
Giza Baliabideen Zerbitzua  
**Lan Arriskuen Prebentzio Saila**  
(INSL) Landaben Industrialdea, E-F k.  
31012 Iruñea  
Tel. 848 42 37 69 · Fax 848 42 37 38

**2012** ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA



**Nafarroako  
Gobernua**

# ⇒ FOTOKOPIAGAILUEN KOKAPENA ETA ERABILPENA ⇐

Segurtasunari buruz jarraian aipatzen diren gomendioak erreprografia lanen gainekoak dira. Ez dira aintzat hartzen makina fotokopiagailuen konpontze edo mantentze lanei loturiko arriskuak.

**Norentzat:** Lantokietako arduradunentzat eta makina fotokopiagailuen erabiltzaileentzat (atezainak, zerbitzu orokorretako langileak, administrariak, etab.).

## FOTOKOPIAGAILUAK KOKATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK

- Fabrikatzaileak egindako erabilera eskuliburua eskatzea eta bertan kokapenaren, aireztapenaren eta abarren gainean jasotako gomendioei jarraitzea.
- Fotokopiagailua ongi aireztaturiko gela batean instalatu behar da, segurtatu ahal izateko gelako airearen berriztatze egokia. Espazio aski izan behar da makinaren inguruan, mantentze lanak behar bezala egin ahal izateko.



- Instalatzean, saiatu behar dugu fotokopiagailuen aireztatze zirkuituak ez buxatzen objektuekin, altzariekin, eta abarrekin. Aireztatze faltak makinaren barneko tenperatura igoaraz dezake, eta sua hartzeko arriskua eragin.
- Areto batean hainbat fotokopiagailu badaude, nahitaezkoa da aireztatze eta hozte gaie-tan dauden eskakizunik zorrotzenak betetzen direla ziurtatzea.

- Makinaren aldian aldiko mantentze lanak lantokiak kontrataturik zerbitzu teknikoko langile prestatu eta baimenduek egin behar dituzte.
- Makina fotokopiagailuak kontzentrazioa eskatzen duten lanpostuetatik aldendu, makinek eragiten duten zaratak arreta ez galarazteko.

## FOTOKOPIAGAILUEN ERABILTZAILIEN GOMENDIOAK

- Fotokopiagailua manipulatu aurretik, makinaren erabilera baldintzen eta ezaugarrien gaineko informazioa jaso. Horretarako makinaren erabilera eskuliburua kontsultatu behar da.
- Tonerraren hautsarekin kontaktua saihestu behar da, kartutxoak manipulatzean edo aldatzean eta papera tratatzen denean. Lan horiek arretaz egin behar dira, eta ondoren eskuak garbitu behar dira.
- Ez egin putz tonerrari, zeinahi azaleraren gainean egon daitekeen hautsa kentzeko.
- Aldizka aireztatu egin behar da makina fotokopiagailuen gela. Horretarako izan ezazu maiz aretoko leihoa edo atea irekita.
- Fotokopiagailuen aireztatze zirkuituak ez dira buxatu behar objektuekin, altzariekin eta abarrekin, makina ez dadin gehiegi berotu.
- Fotokopiagailu bat barrutik manipulatu behar bada, erabilera eskuliburuan zehazten diren elementuak baino ez ukitu eta eragotzi behar da objektuak (eskuturrekoak, arropa, eta abar) katiga daitezela makinaren elementu mugikorrekin. Gomendagarria da makina deskonektatzea eta tarte bat uztea makinaren atal beroak hoztu daitezten.
- Makina deskonektatzean, larakotik tiratu behar da, inoiz ere ez kabletik.
- Prestakuntzarik edo baimenik ez badugu zeregin batean aritzeko, ez aritu. Matxurarik badago, eman abisu beti zerbitzu teknikoari.
- Ez da komeni fotokopiagailuekin lan egiten den aretoetan jatea edo edatea.